LOTAZILLA
26
Eguena
Bilbao, 1935

EUZKADI

ARPIDE-SANEURIJA
Bilbao'kua ... ... 9,00 ireko. iru liez
Bilbao'atazkua ... 11,25 " "
Idazki-itunmena ... 62,00 " urtez
Atzerijetakuak ... 112,50 " "
Beldayen itunduba

XXIII urtia | Idazkolea ta Banakolea: Correo, 17,1.° | 234 Idazkutxa | 17.810 Urrutizkiña | 7.177 Zenbakija

Oxin-baltza

(Jarraipena)

Beste egun baten be, axe emakumia ber-bera, lenago letxe bere umetxuba besuan ebala "Efota-zara" basetxera juan zan. Eta, egun oretan be, "Efota-zara,,'ko etxekoandra gastia labako-suba egiten iñardubala aurkitu eban.

Orduban be eskeko-emakumiak "Ata gurea" aretaz otoiztuta gero, barura adi-adi zala "¡eup!" didar begikua abots-gozoz didar egin eban; eta, abots-gozoz egiñiko didar-berezi-leunak, etxekoandra gastia, atian nor ikusiko, beingo baten kanporatu eban.

—¡Gaur be emetik...! Ze Jainkuen bendeziño dakazube...?—Etxeko-andriak asare-antzian itandu eutson.

—Onarentzat, ona, ta txarrarentzat txarra...—Eskeko emakumiak erantzun eutson—. Gosez negarez aurkitzen dan umetxu kutun onentzat, ogirik edo artorik badaukazu...? Neure semetxuba gosez dago; negarez dago... Ori dala-ta, neure kutuntxube, bere gose-mingarija kenduko leukien bijotz-samur-matatijen bila, mundu-ziar abijau da... ¡Ta au mundua...! Bijotzik onena atsekabez, ta larosarik ederena samiñez... ta... atia jo ta ezer-ez... Gustija emon dautsunari, zegozertxu ez ete dautsazu emongo ba...?

Azkenengo berba ikutugarijak, orotako andriaren buru-buruban matasa berezija sortu eben; eta origatik, andra gaste artegia, buruban eban matasa-nastua aritik-marira atondu gurarik, bertatik oldozkor jarri zan.

Eta olan egualarik, eskeko-emakumiak, barira be, arpegi ben-gozoz esan eutson.

—Etxekoandra mate orek, nire loratxuarentzat, ezer-be ezer-be eztaukazu baña...?

—Zuri edo baltz, asko edo gitxi, baliteke zegozer egotia edo eukitia be...—Efotako andriak oldozkor erantzun eutson.

Eta, beriala barauratuta, barira be, titara-bete urunegaz, ogi-opil txiki-txiki bat oztaz egiteko lain ora gertau eban; eta egiñiko opil-gaya, eskekotxuaren sabel-gosia asetuteko ustez, beste ogi-opilakaz nastian laba gorijan sartu eban.

Orduban be baña, lenago jazo zana jazo zan. Opil-ora txiki-txikija, ogi andi ta eder biurtu zan; beste ogijak baño amar bidar andijagua, ederagua ta apatzagua egin zan eta.

Bariroko jazokun arigari onek, erotako andria, "zuti ta muti" zur eta lur eginda itxi eban; zer oldoztu ez zer esan ezekijala, kokolotuta geratu zan. Ogi-opil miragarijari, begi zabalez begiratuten eutson. "¡Ze mirari don au...?—Artega ta ikaraziranduten eban.

Eta, begiratu ta begiratu, ta egon eta egon... bere bijotz-erkiñian azpadiz eguan zekenkerija, geldiro-geldiro sendotzen asi zan.

Lenengo, opilik ederena umiari emotia, tamalgari ixan yakon; gero ostera, opilik txikijena ta kaxkarena etxetik kanpora bialtzeko gomutiak be, bere barruban alako "zertxuba" egin eban. Irugarren gogaldijan bariz, andija naiz txikija, edera naiz erkiña, gitxi naiz asko, iñori ezer emotiak bijotza apurtzen eutson. Olakoxe zeken gaiztua zan...

Eta, erotako andra zekenak, bijotzian jira-biraka ebilkijon zekenkeri iguingarijaren aolku kaltegarijari oso-osuan jaramonda, iñungo iñori "altzirik" be egundo ez emoteko asmo berezija artu eban.

Eta, etxekoandra barabana, "etxian zer biarko be" bere betiko lelua espanetan ebala, eskeko emakumiagana juan zan; eta emakumiari ta umiari, begirakada zorotza jaurtijaz, eremuskada latzez esan eutsoen.

—Zuaze ortik-ziar gogaikarijak alakuok...! Beti eskian-meskian etxe ingurubetan ibili barik, zuaze zuaze ortik-emetik eskeko pestiok... Juan, juan emetik beste leku batera; zuek gura dozuben erijen batera edo...

—Eta ezertxo be emon barik, aremuskada latzez bialtzen gozuz...?—. Eskeko emakumiak apal-apalik itandu eutson—. Badaukazu ba zuk, artua, ogija ta abar, etxian gauzia ugeri... Jaungoikuak esku-zabalez emoniko ogasunez gonburututa dago "Efota-zara" basetxe edera ba-ta... Gustija emon eutsunari, amaretik "batxu" be ez ete dautsazu emongo ba...? Jaungoikua'ren ixenian zeure onerako eskatzen dautsut...

—Ez, ez... ez Jaungoikuaren ixenian, ez beste iñoren ixenian be eztautsubet ezer emongo. Ogirik, artorik ez beste gauzarik, eztaukazue emen...—etxeko andra zitalak erantzun eutsoen.

Orenbeste zekenkeri ikusita, eskeko-emakumiak negar eta negar egin eban. Efota'ko andria'ren bijotza, zekenkerijaren arak sendo jota eguala uartu eban; eta ori zala-ta, bere ta bere etxiaren ondamendija, ur-urian zala igari eban.

Oregatik, tamalduta negar egiten eban. Efota'ko andria, zekenkerijak galduko ebalako... Ta eskeko-emakumia, andra-bijotz-bako areri geyago berbarik egin barik (berari ezer esatia alperik zalako), umetxua bere bularian mate-matero estututa ebala, mendija gora ta gora juan zan; mendi-txuntxureko zeru-urdiñian miragariro ayenatu zalarik.

Urengo iluntzijan, eskeko-emakume arek, "Efota-zara" basetxeko soluan neskatila eder bat ikusi eban. Eta, basetxe artako otseña ete zanentz itandu eutsonian, neska eder arek, bayetz angoxe otseña zala esan eutson.

Ori entzunik, emakumiak matero esan eutson.

—Neskatila on ori; zoritxareko etxe oretatik, lenbait-len aldendu ate... Erubakuak erudunaz jasan eztagijan, bijar goxian-goiz, egun barijak bere argija ekartiaz batian, ua eure gurasuen basetxe matagarira... Eure onerako agintzen dunat dana... Neure esanak zorijonduko au... Ua emetik... Neskatiiak, emakume ezezagunaren aolkua, zer jazokuaren bildurez edo, oso-osuan beteta eban.

Bijaramon goxian, egun barijak bere argija ekari ebaneko, bere janzki-pardela besapian ebala, zoritxareko etxe artatik bere gurasuen etxera arinka juan zan.

Eta ordu batzuk geruago, "Efota-zara" basetxe inguruban, turmoi-ots itzelakaz, ekaitz bildurgarija sortu zan. Eta, oñeztu, turmoi, euri ta txingor eta axe-bijora ugeri zirala, "Efota-zara" base txia ezarita eguan lura dardaraldi erimiak igituta, bat-batez edegi zan; eta orduantxe bertan "Efota-zara" basetxe entzutetsuba bere etxekoandra zekena baruban ebala, lurak bildurgarro iruntsi eban.

Eta, etxia ta etxekoandria ondatu ziran lekuban bertan, ur-loyak eta zikiñak piloan batuta, oxin zikin-zikiña sortu zan. Eta, an inguruko jentiak, jazokun oregaz ikeratuta ziralarik, oxin zikin areri, "Oxin-baltza" ixentzat ezari eutsoen.

Len saritan atatu dogun eskeko-emakumia, Miren Neskutza ixan zan; eta bere besoko umia, Josu Umia.

"Efota-zara" basetxeko andra zekena, gosez eguanaz erukitu etzalako, ta eskekoari bijotz-gogorez berba egin eutsolako, Jaungoikuak, meresi eban zijoraz zijortu eban... Berak esku-zabalez emon eutsozan aberastasunetatik amaretik "batxu" be Bera'ri, au da, eskeko txiro erukarijari emon ez eutsolako... Andriaren zekenkerija, Jaungoikua'ren begijetarako iguingari ixan zan.

MAÑARIKO.

Ontzako urrea

Arritokieta

II

Notin onen bat (emakumea eztabaidarik gabe) igaroko zan kale artatik Gabon gau aretan, eta ume gaxoa era erukari aretan lo ikusirik oñutzik, bere oñetakoa aurean zuala, Josu Umeak biotza ikuturik, jaurti zuan zapatatxoaren barura ure gorizko diru aundi ura, jabegabeko umetxoa esnatzean bezuz eder ura ikusirik, bere zoritxar gorria gora-bera Jaungoikoagan sinistu zezan Jaunak bere ardura izan zuala ikusiaz.

Ontzako ure ura ume eskalearentzat aberastasuna zan, egun askotarako jakia, berokia, aterpea ta atsedena.

Baña abizen garbidun, gudalburu zintzoaren semea zan ogei ta iru urtedun mutil gazte jokalariak gogai txar bat izan zuan, inpernuko txerenak berak sortu erasotakoa noski bere buruan eta biotzean.

Begirakun batekin ikusi zuan kale guztiko bakardadea, iñondik ez zan iñor agiri, ta belauna okertuaz luzatu zuan poliki-poliki bere esku dardaratsua eta ostu zuan oñetako erorian zegoan ontzako urea!

Beriala bere indar guztiakaz ariñaketan asirik artu zuan joko-etxerako bidea, eldu zan atera, igo zituan eskilera malak launaka, bultza zion ukabilkada indartsuaz erdi zabalik zegoan atear, eta sartu zan madarikazioko aretoan erlojuak amabiak jotzen ari zan unean bertan, eta zapi orlegidun mayaren gañera ontzako urea jaurtiaz "amazazpiarentzat"! deadar egin zuan.

Bere begien aurean zeukan ure, zilar eta diru paperezko pilo aundi bat, eta berari begiratuaz soro baten erara eskuakaz zapi orlegiari atz egiten azi zan. Eta diru pilo guzti ura berak irabazi zuan!

Zoriaren jolas bat edo zer ete da berau? Jokuan azitzeko eraman zuan itxumustuan, beroki lodi, aztuna kentzeko astirik ere ez zuan artu. Ondo etori zitzayon irabazitako diru piloa gordetzeko.

Bete zituan diru paperez, urez eta zilarez bere beroki edo abrigoen sakel aundiak ia estauda egiteko zorian utzi arteraño, baita ere jakaren barungo ta kanpoko patrikak, txalekuenak, prakenak, dirukartera, petaka, txapela, eta azkenez baita bere suduri zapia ere. Ez zuan ia dirua nun gorderik.

Baña ala ere joka ta irabazi, joka ta irabazi ari zan, zer zegian ez zekiala, soroa bai litzan, moskora bai litzan, eskuak betean ontzako urear jokuko mai gañera jaurtiaz, edozer zenbakiri, edozein aldetara, garia erein oi dan bezela. Eta beti irabazi, beti irabazi.

Baña bere biotzean, burni goria bai litzan, zer edo zerk min ematen zion, eta arisko jarlekuen gañean lo zegoan eskaletxoaren irudia ezin kendu zuan bere irudimenetik. Berak ontzako urea ostu zion umetxoa!

—An egongo da oraindik lengo lekuan! zezan. —Bai, antxe egongo da..! Oraintxe juango naiz... Laister juango naiz... Ordu batak jotzen dutenean... emendik ertengo det, lo dagoan modu modu, an neure besoetan artuko det, neure etxera eramango det, neure oian ipiñiko det...

Eta gañera ikastetxe on batera eramango det; aziera ona emango diot; ezkon sari aundia ere bai; gañera, neure alaba bai litzake bezelaxe maite izango det; neuk zaituko det beti, beti!

Baña erlojuak ordu batak, eta ordu batak eta laurdenak, ordu bat eta erdiak, ordu biak laurden gutxiago io arен, Luki juku mai gaiztoari eultzika zegoan, berari josita bai lego bezela.

(Darraike.)

Gayak

EUZKEL-IXENAK

Irazabal'dar Antselma abertzale zintzuaren emaztiak, seme eder bat ixan dau, ta ugutzan Jon Joseba euzkel-ixen polirak ezari dautsoez. ¡Ederto orixe! Guraso euzkotarak euren semientzaz daben lenengo biarkuna ondo bete dozube. Eta orain, asi dozuben lan eder ori oso tuteko, semetxubari irakatsiko dautsazuben elia, geure euzkera matia ixango dala uste dogu, zuben benetako aberтzaletasunak ori eskatzen dau-ta. Zorijonak.

GABONKARIJAK

Bilbao'ko Emakume Aberтzale-Batza 'ko emakume bijozbereak, urtoroko uтureari jarraтubaz, Gabon goxian goxetik asita ¡amaika otzaratxu bete banandu eben!

Arataruriko egunian, Koreo txaidia ikustekua eguan, egon be. Emakumien aretora igoten dan zurubi barenetik asi, ta Loteria txaide egalerañoko bitartia, Gabonkari-bila aurkeztu ziran notiñakingo erezkadiaz, lero luze-luzia egin-da ikusten zan.

Zurubi barenetik asi ta goiko aretora bitartia be, notin-lero luziaz leротuta aurkitzen zan. Eta ¡a ikuskarijaren polita! Esku-utsik baruratuten ziran notiñak, eskubak beteta ebezela urtetan ziran: otzara bete-betiak agirijan ebezela.

Gabonkari-jarai sartu-urtenka ikusten ziran notin areik, erle-marora sartu-urtenka ibili oi-diran erletxuben antza eben. Antz ori apur bat bardingetuten eban zera, auxe zan: erletxubak erle-maroratuten diranian, eztigaiz ondo zamatuta sartuten dirala, ta eztigai gustijak baruban itxita, urten. Beraz Gabonkari-zaliak egin ixan ebenaren iruntzija; oneik, ba, zama edo karga barik sartuten ziran, eta jaki ta edakiz ondo zamatuta urten.

Bilbao'ko Emakume Aberтzale-Batza 'kuak gertau ixan dabezan Gabonkarijak, benetako Gabonkarijak ixan be ixan dira: jaki-gose danarentzat, jakija. Egari danarentzat, edakija. Eta soña jantzi biara dabenarentzat, soñekua.

Oretarako, baña, emakumiak ixan biar, ama-ixena matasun-bidetik artu ixan daben eta ama-geyak diran euzko-emakume zoragarijak. Zorijonak, zubei, ta jarai.

EUZKERAZKO AGURTZA

Gabon gabeko aparijari, Jon Deunen ertxadonan abestu zan euzkerazko agurtzeaz asikerea emon yakan.

Agurtza begiko au Gabon-iluntzian urtoro abestuten dana da.

Asmo eder ori otu yakanian, Bilbao 'ko Euzko-Gastedija, Josu Umetxuba 'ren ludiratzian goi-argituta aurkitu zala dirudi, Gabon apal-aurerako asmau al leiken abo-gazigarirk aldintsubena asmau ebela ezpai barik bayeztu leike-ta.

Agurtzea berez be edera da. Euzkeraz abestuta otoiztuten danian, baña, berez edera dan eder ori, zoragari biurtuten da. Asmo zoragarria ixan eban Gastedi begiko ori, be-yuakijoz gure zorijon-agurik bijotzetikuenak.

Azkenian "Agur, Josu'ren Ama, Neskutz matetsuba" abestu zan. Agurtzaldi onetan, Jon Deunen ertxadona osuan euzkeldunduta aurkitzen zan, txindi-eskaliak be, "txadonarako" ezeren utsik barik oguzten eben-eta.

ESPETXERA

Agurtzea amatu zanian, Efonda txaide-ostetik gorantz, Zabalbide'rako ari -maladija igoten asi gintzan.

Zabalbide'ko espetxian anayak doguz, ba, ta arei poz-aldi bat eruatia biarekua zan.

Zur eta gaste, emakume ta gixon, espetxe-orma jaso ta itzal arein inguru-biran bildu gintzanakin, Jel-gudarozte sendua egin zan.

Espetxe-leyo txikijetatik urtetan zan tximistargijak, ilobijetako gaimel-argi ituna zirudijan; eta an ate ta leyo ertsijen barukaldian lau ormaen erdijan aurkitzen ziran gixaki gixagaxuak, bariz, euzko baso ta zugaztijetako azkatasuna galdu eben ego bako txoriño kayolatubak zirala.

Azkatasunaren abeslarijak; azkatasun-egarijak azkatasun-eguak ebagi ta kayolara sartu ebezan euzko-uretxindor arein euzko-goguak alatuko ba'ziran, euren anayen abestijak biar ziran. Eta guk, espetxe-leyuetarantz begira jarijaz, "¡Jagi, jagi! euzkotara, lasterr dator eguna"; "Ator, ator, mutil etxera" ta "¡Gora ta gora Euzkadi!" abestu geuntsezan.

Eta eurak (¡gaxuak...!) ¡Gora Euzkadi! bulartsu bataz erantzun euskuben. Espetxe-leyo estuben burdin-bitartietatik guganatu zan ¡Gora Euzkadi! bulartsu a, indar-bidez eguak ausita espetxian sartu eben azkatasunaren gogua ixan zan. Goguarentzat eztago, ba, esirik.

Eta jauntxubak ezegaz be esitu ezin daben euzko-gogua ixango da Euzkadi azkatuko dabena.

GABON-ZORIJONAK

Euzko-idazle ta irakurle batzuk, idaz kiko txikitxubetan eta abar, agurtu gaitubez, eta Gabon-zorijonak opatu.

Zorijon-opaka yatorkuzan idazle ta irakurle mate-matioi, geure eskar ona erakusteko, eskaron - idaztortzaz lero oneik idatzi doguz, eta Josu Jayoparitxuba'ren geznarijak bai-liran, eskaronez zamatuta zubekanuntz bidaldu.

"Aintza Goyetan"—iñuen gotzonak—eta gentzea lurian". Eskarik asko, ta zorijonak.

Uribitarte'tar Iñon.

Mutiko gozozalea

(IPUIA)

Martintxo, sei urtedun mutikotxo bat zan, aitatuko detan gozozale purukatua. Gozoagatik, bere burua emango zuan. Iñoiz, eta saritan amak elizan botatzeko txanponak ematen ziozkan eta Martintxo'k, eleizan bota bearean, eurakin gozoak erosten zituan. Amaika ipurdiko artzen zuan aren, beti berdiña zan mutiko biuria.

Egun batez, jai aundia zala ta, bere amak gozo batzuek ekari zituan etxera: mutiko begi zoротzdun arek, ikusi egin zuan, amak, nun utzi zuan bilkura (paketea) eta, ama zeregiñetan zan bitartean, bilkura uraxe astertzea: Bururatu eta egin. Joan zan gelara eta artu zuan bilkura bere mendean, azkatu ziozkan lokariak, zabaldu zuan.. eta ¡ene!, ikusi zuan, gozo ederez betea zegola, bilkura ura. Erekoondo!—zion berekiko—nere atsegiñik aundiena, esku artean diaukat..., oraintxe nauk zoriontsu. Jan ta jan, jan ta jan, bukatu zuan gozo aiekin. Edergo eta goxoago zeuden ta....—zion bere artean—; nai baño lenago irentsi dizkiat-aaa.... Ontan, amak zerbait bear zuan ta, Martintxo'ri dei egin zion.. Martintxooo! nun zera?, ta ixilik mutikoa. Martintxooo, tira azkar, bazkaria egin dezadan, aita laister etoriko dek eta... Oraintxe, ama, oraintxe—erantzun zuan alako batean—. Ordua dek—esan zion amak—. Orain ere zerbait ba dek ik, tira ekari zak ogia, azkar. Amak zerbaiten zumea artu zuan, eta, gela artara juan zan, esanaz: Orain ere beldur naiz, gure mutil biuri arek, nik ekari ditudan gozo alekin...; baño ez, ez dari ezer; juan zan, ama gozoak zeuden lekura eta bilkura artu ondoren onela zion: bai arin dagoala? uum ez dakit, ez dakit, iriki zuan ta... zera! utsik... Ai deabrua! Josuus—zion, oraindik aundiagoak esaten jariko nau lotsagabe arek. Onetan, etori zan, ba, Martintxo, egitatikan eta dio amari: ona, esan dit atzokorik ez dago ala. Atsokoa....! —erantzun zion amak—. ¿zer egin dek?, Nik?—erantzun zion Martintxo'k erugabe baten giza-ezer ez.... Ezer ez?—befiro dio amak, zer egin dek gozoekin? Ixilik nere mutikoa. Befiro ere amak, besotik eldu ta, dar dar ibiliaz; erantzun zaidak!, zer egin dek gozoekin? Orduan, Martintxo ixil ixil dio: jan egin ditut. ¿Jan?—erantzun zion amak—,ordainduko dek, gaur, lan ori, egon apur bat. Jipoi edera eureganatzeko ez dek txara egin. Jakingo dizkik aitak.

Ama—erantzun zuan lariturik, Martintxo'k—ez zaiozula aitari ezer esan...

Ez esateko! erantzun zion asarez amak—baña mutil—zion befiro—, nola bururatu zaik okerkeri ori? eta, Martintxo'k, beste zer erantzunik ezta dio: Ama, etsaiaren zitzaldi (tentación) bidez egin det oben ori. Etsaia?—zion amak—eu aiz, i, naiko etsai. Onela ari zirala, sartu zitzaien aita, eta, ikusirik ala zebiltzala, galdetzen dio amari: Zer da gertatzen dana? Orain ere ba degu zerbait? An zegon Martintxo bazterean lotsaz eta beldurez, eta amak erantzun zion aita (edo senarari). Zera, gertatu. Betiko leloa: gozo batzuek ekari ditut enparantzatik eta gorderik zeuden lekura joan ta, guztik ez ditu jan ba? Ederki—erantzun zuan aitak. Ekari zazuz ostera befiz, gozoak, eta maira atera ondorean, jan gabe egon dediia. Orela artuko du min aundiena, ta ez joka.

Amak ekari zituan, befiro, gozoak, maira atera zituan eta Martintxo an egon zan begiak urratu bearikan, baño alperik zan.

Martintxo, orduan, negarez asi zan eta, aitari damutu egin zitzaion bere agindua, eta esan zion: tira, jan, baño urengorako ikasi, an jan gabe ere, ez al zendun maian jango? Ez dekala befiz orelakorik egiten; mutiko zintzuak ez diok egiten orelako irekarik, ama eta gurasuari, entzun dek?

Orduan, Martintxo'k, belaunikaturik, bere obenaren barkapena eskatu zien aita eta amari, eta onek, pozez barkatu zien, Martintxo'ri, bere okerren obena.

Andik aurera, ez zuan, Martintxo'k alako lotsagabekeririk egin, eta mutiko atsegin bat izan zan.

Kai-alde.

Ontuak eta zizak idazkijak

O.'tar J.—Uretxua.—Pozik irakurri dogu zeure idazkija. Geure arazo onetan, zeure zaletasunaren laguntza ditxarogu. Eskerik asko.

Arbe.

ERRIJETATIK

ZUMARAGA

SORTZEZ GARBIA. — Iñoz Dauv elizkizun ederagoekin aurten ospatu da egun au. Aita Agirеolea'k itzaldi bikañak egin zituan, ala ere bukaeran igande aratsaldean eleiz osoa beteta dalarik danok txoratuta utsi giñuzen. Zorionak Josu lagun ospatsuari, eta ¿noiz arte...?

ITZALDIAK.—Laister, datoren ilian Onaindia'tar Alberta kanoniguak gure txadon nagusian. Lekaidetxe'ko (Hijas de la Cruz) antxiñako ikasliak eratuta. Ezdira gero makalak onek andereñuok, Onaindia izlari ospetsua ekarteko. Aze nolako beteka tak gure eliza ederak.

¿EGILEOR TA BEORLEGI?—Bai gizona, ilan 28'an gure Batzokian. Egileor, Beorlegi, Txomin Olano, ta... Donostiko Euzko-Abesbatza'ko beste abeslari bi. Daoneko entzuten degu pare algara eta txalo burundara ¡Egileor, Beorlegi... egin pare... Txomin Olano, Olaizola, Zabalbeaskoa... jo txaluak, jo, jo...!

Badakizu aberkide ilan 28'an Batzokira, lotsatzen ezpazera, batzuek lotsatu egiten dira eta.

EZKON-DEIAK. — Arizabalaga'tar Kepa, Uri-Buru-Batzareko lendakaria ezkontzen zaigu, Oria'tar Bendure Legazpi'ko emakume lirañakin.

Ondo dakizute bikote maite orek opa dizutegula zorion guztiak. Ziur gera euzko-sendi beri leiala egingo dezutela Kepa'k eta Bendure'k. Jaungoikuak, osasuna eta zorionaren ego zabalak zuen gain zabalduko al dizute betiko, maitasunaren uztarian betiko lotzen zeraten Arizabalaga'tar Kepa eta Oria 'tar Bendure abertzale zintzueri.

Aitzeta.

"Euskaltzalearen" alegiñak

Donosti'ko aurtxoen euskal-erakusketa.-Bertsolarien eguna.- Antzezlari-taldien gudua

¡BADIRA AMAIKA AUR...!

Alaxe da: "badira amaika aur, oraindikan ere, Donostiko uri onetan euskera dakitenak"!—zion amonatxo batek atzo Poxpolin Antzokitik irtetzerakoan.

¡Uste baizuan amonatxo onek euskera ziero Donostian galdu zala! Donostiar nexka-mutiltxoen ezpaiñetan euskera erabiltze orek arpegia alaitu arazi zion, bere ilobatxuaren lantxoak ikus eta entzutera juan zitzaigun andre zar oni.

Nork Kursaal-peko teatro galant ori ezagutzen ez ote du? Aurtxoez josia zegoan atzo goizeko erakusketa atsegingarian. Milenbat nexka-mutil baziran antzoki zabal artan; guziak euskera dakitenak, geienak euskera maite dutenak.

Irureunen batzuk ezenaiotik igaro ziran beren euskel trebetasuna azaltzearen. Iruen aurek euskeraz irakuri edo bertsoak esan edo Euskaleriko bazter guzien beri eman edo ipuiak kontatu edo abestu edo... ni baidakit zenbat beste gauz egin zituzten euskaltzale txiki aiek. ¡Bejondaiotela!

Auxe baidala euskeraren alde zintzo jokatzea. Bost urte dira oraintsu "Euskaltzaleak" aurен jaitxo oiek eratzen asi zirala. Asi berietan "Novedades" teatro txikian biltzen giñan euskaltzale guztiok Santo Tomas egunean.

Euskaltzaleak, Jaungoikoari eskerak, ugaritu egin giñan eta antzoki aundigora jo bear izan genun. Ara nola Poxpoliñetako mandio aundi ortan gure jai oiek gertatu izan bearean arkitu geran.

Aurtengo irugarren aldiz Poxpolin antzokian. Etortzekoak diran urteetan ugarituko ote gera? Donostiko ikastetxeak euskeraganako maitasun pizka bat baluteke ez teatro bat, iru ere, Santo Tomas'etan leporaño bete bear genituzte.

Gaizki diogu, ez da ikastetxeen erua, guraso abertzaleen ajolakabekeria baizik. Zergatik guraso oiek irakasleei eta ikastetxeko buru diranei euskeraz beren semetxoei irakasteko eskatzen ez ote diete?

Egizko abertzaletasunik biotzean ez daramatelako. Mingañean bai abertzaletasuna, agian mingain luzetxoaren puntan, ez ordea euskeraren maitetasunik biotzean.

Donostiko abertzaletasuna nor balitzake beste etorkizun bat izango luke euskerak. Zergatik "Euskaltzaleak" bazkunak darabizkin lan oietan abertzaleak laguntzen ez diote ikastetxe guzietan euskeraz irakasi arazten?

Ez dira ere gaurkoak "Iztundeko" antzezlariak darabilzkiten nekeak. Ogei urtetik gora dira Santo Tomas'etan, urte bat utsegin gabe, euskal teatroa egiten dutela. Orduan bezin adoretsu gaurko egunetan ere azaltzen zaizkigu.

BERTSOLARI GUZIAK AGERTU DITEZELA

Orixe nai luteke Euskaltzaleak, noski, Euzkadi'n diran bertsolari guziak agertzea beroientzako gertatu dituzten batzaldietara. Ez, ordea, guziak egun batean Donostian biltzeko, igaz bezela. Ogeienbat ziran igaz Donostian Bertsolari Eguna ospatu genduenean; aurten berogeitamarretik gora izango lirazke. Ainbeste bertsolariekin nola ekitaldia gertatu? Eziñekoa izango litzake.

Bide berria aukeratuak ditugu eratzaleak Donostiko egun ori baño lenago beste bertsolari ekitaldiak ospatuko dira. Lenengoz, Tolosan, il onen ogeita emeretzian; bigarenez. Azpeitian, datoren urtearen lenengo egunean eta Elizondon, aizkenaz, ilbeltzaren amabiari. Iru eri auetantxe bertsolari trebeenak eta jaioenak aukeratuko dizkigute Donostiko batzaldiera agertu ditezen, nor txapeldun gelditu.

Zumaragatik Ondarabi arteko eri guzietako bertsolariak Tolosara juan bear dute nor geiago dan adieraztera. Orio 'tik Motriko bitarteko itxas-eriakoak eta Zestuatik Leinitzeraño Gipuzkoako beste erietakoak Azpeiti'ko batzaldian neurtu bear dituzte beren indarak. Naparokoak, berriz, Elizondon.

Gure bertsolari oiek, geienak beintzat ez dituzte egunerokoak irakurtzen. Abertzale eta euskaltzale diranak, bada alegindu bitez gure bertsolariei beri oiek adierazten; Tolosara edo Azpeitira juan bear duten jakin arazi biete. Bazkariak eta juan-etoriak ordaindu ko zaizkiete. Euskaltzaleak eta Eusko -Gaztediak, eri oietako batzokiekin bertsolariak ondo zainduko dituzte.

ANTZEZLARIEN BATZALDIA DALA-TA...

Txapelketa oiek badaramakite mami bizian ara. Iñor naigabetu nai ez eta antzezlari talde geienak minberatuak itzultzen zaizkigu Donostiko gudu oneti.k.

Zer dalata? ¡Nork jakin egizko gaitza inork agertzen ez badu? Dana dala euskaltzale gartsu eta benetakoak txikieriei ez liteke kasorik egin bear. Orelako zapuzkeriaz iñork irabazi ez eta euskerak galtzen du.

Alaz guztiz ere negu onetako gudura zortzi antzezlari talde datorzkigu. Beroien lan ederak III'garen Antzerti -Eguna ospatzeko bide zabala uratuko digute. Gaur izan genezaken euskal ikastol biziena eta egokiena teatroa degu; euskerari eusteko eta goratzeko ikasbiderik indartsuena.

"Euskaltzaleak,,'i zor dizkiogu esandako egintz guzti oiek. Or ditugu, ordea, "Euskaltzaleak" aztuta, baztartuta, ezerkotzat artzen ez ditugula. Iñoren laguntzik gabe, begirapen eta itzalik gabe. Ez bai zaiote abertzale geienei ajolik orelako eginkizunegatik. Elezioetako artuemanik ez bada ezertxoeri ez diote olakoak, eta geienak izaki olakoak, garantzirik ematen.

Bijoakiote beintzat "Euskaltzaleak" bazkun adoretsu eta kementsuari gure zorionik anaikor eta sutsuena.

("El Dia,,'tik.)

Irakurri EUZKADI